

txintxarri

EUSKARA

Justizia linguistikoa ardatz, topaketak egiten ari dira kultur etxean

Alor horri buruzko oinarri filosofikoak zein politikoak lantzen ari dira Udaltop jardunaldien hemezortzigarren edizioan, aurrez aurre nahiz sarean. 234 pertsonak izena eman dute / 2

EKONOMIA

Urtaroa gogotik ospatzen hasi dira Aterpea eragileko bazkide diren merkatariak / 5



TXINTXARRI

GIZARTEA

Proiektu pilotu bat jarriko du martxan udalak, Saharako haur gehiago etor daitezzen herrira / 3

GIZARTEA

LGBTIQ+ fobiaren aurka, askotariko sentsibilizazio ekintzetan parte hartzen ari dira / 4

KULTURA

Eider Rodriguez eta Anariren 'Ipuin kantaketa' saioa aurrera eraman du Irakurle Txokoak / 7



TXINTXARRI

KIROLA

Eguzki Escalerilla tabernak partidarik galdu gabe Euskal Kopa irabazi du

Zaletuek hauspotuta, Salburua FS Gorria 6-4 garaitu du Euskal Kopako azken jardunaldian eta garaikurra jaso du / 10



TXINTXARRI

KIROLA

Aizpea Racamonde herritarra kide duen Gaztedi Ohorezko B Mailan jokatu da 2026-27 denboraldian / 11

EUSKARA

XI. Euskararen Maratoiko zortzikotea, leloa eta logotipoa aurkeztuko dituzte hilaren 27an, Jalgin / 16



Giza gazteluak, herrian

Saio berezia egin dute Euskal Herriko Casteller Taldeko kideek Okendo plazan / 6

TXINTXARRI

EUSKARA

Euskararekiko justizia linguistikoa benetan justua izateko bidean, Udaltop topaketa

Alor hori ikuspegi filosofikotik zein politikotik jorratzen ari dira kultur etxean

Txintxarri

Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketa aurrera eramaten ari dira Manuel Lekuona Kultur Etxean. Gaurkoa (hilak 21) da Justizia linguistikoa: diskurtsoak, praktikak eta oinarriak berdintasuna helburu izenburua duen jardunaldiko bigarren eta azken eguna. Alor hori bera izaten ari da ardatza eta ikuspegi filosofikotik zein politikotik jorratzen ari dira antolatzaileak, gonbidatutako aditu hizlariak eta aurrez aurre nahiz sarean aritzeko izena eman duten 234 pertsonak. Besteak beste, gai hauek guztiak aztertzen ari dira: hizkuntza gutxituak indarberritzeko funts etiko eta politikoak; horiek hizkuntza politikoen marko teoriko eta praktikoetara ekartzeko bideak; edota araubideetan nola islatu.

Antolatzaile lanetan euskararen lurralde guztietako erakundeak ari dira aurten ere: Euskal Hirigune Elkargoa; Eusko Jaurlaritzza; Nafarroako Gobernua; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak; eta Lasarte-Oriako Udala. EUDEL, UEMA eta Kataluniako Consorci per a la Normalització Lingüística (CPLN) erakundea bidelagun dituzte. Atzoko egunari hasiera emate aldera argazkia atera zuten ordezkariak eta kultur etxeko auditoriora joan ziren hasiera ekitaldian parte hartzeko.

Aretoa horretan elkartu ziren guztiei eta jardunaldia saretik jarraitzen ari zirenei Agustin Valdiviak egin ziren ongietorria, Lasarte-Oriako alkateak. Ondoren, udaleko Euskara saileko zinegotzi Estitxu Alkortak hartu zuen hitza eta nabarmendu zuen herriz herriko integrazioak "linguistikoa eta kulturala" izan behar duela.

Hizkuntzen berdintasun erreala

Arduradun politikoen hitzartzeen ostean hasi ziren hitzaldiak. Valentziako Unibertsitateko Hizkuntza Eskubideen Katedrako zuzendari Vicenta Tasa izan zen oholtzara igotzen aurrenekoa, hizkuntzen berdintasun erreala jarduteko. "Hizkuntza gutxituekiko trataera lehentasunezkoa



Udaltop antolatu duten erakundeetako ordezkariak, kultur etxe atarian. UDALTOP



Hizkuntzen berdintasun errealaren gainean jardun zen Vicenta Tasa. UDALTOP



Xabier Arzo, hizkuntza eskubideen izaera politikoari buruz hizketan. UDALTOP

izatea exijitzen du justizia linguistikoa", adierazi zuen.

Beraren ostean jardun zen UNED Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalako Zuzenbide Administratiboko katedradun Xabier Arzo, hizkuntza eskubi-

deen izaera politikoaz. Horri lotuta, azpimarratu zuen "oztopo handia" izaten ari dela Espainiako Konstituzioa, justizia linguistikoa erdiesteko bidean. Beste gai interesgarri asko jorratu zituzten ondorengo hizlariak ere.



Okendo plazan batu dira egitasmoaren berri emateko. TXINTXARRI

EUSKARA

Dirulaguntza lerro berria, gidabaimena euskaraz ateratzeko

Azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen dutenei 500 eurora arteko beka ematea aurreikusten du

Txintxarri

Udaleko Euskara zinegotzi Estitxu Alkortak azpimarratu du neurri hori udalak hizkuntza normalizatorako duen strategiaren barruan sartzen dela, euskara "eguneroko esparru praktikoetan ere egon dadin errazteko". Hala, gaineratu du azterketa teorikoa euskaraz ikasi eta egiteak espazio berrietan hizkuntzaren erabilera indartzen laguntzen duela.

Hori horrela, Lasarte-Orian erroldatuta dauden eta gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen dutenei 500 eurora arteko beka ematea aurreikusten du ekimenak. Horrek esan nahi du udalak azterketa teorikoaren matrikularen kostua ordainduko duela, prestakuntza prozesu horretan hizkuntzaren erabilera bultzatuta.

Autoeskolak, berriz, "positiboki" baloratu dute egitasmoa. Formakuntza hizkuntza bat baino gehiagotan eskaintzeak suposatzen duen "ahalegina" azpimarratu dute, baita ikasleentzat "euskarazko baliabideak izatearen garrantzia" ere. Era berean, esan dute gisa horretako ekimenek "hezkuntza eta lanbide esparruan hizkuntzaren erabilera normalizatzen laguntzen" dutela.

Hori horrela, herriko autoeskolak "konpromisoa" ere aitortu diete udal ordezkariak, hain zuzen ere azterketa teorikoa euskaraz prestatzeko aukera eskaintzen baitute dagoeneko,

eta herritarrak, batez ere gazteak, aukera hori baliatzera animatu dituzte. Horri dagokionez, Alkortak euskarazko materialari dagokion ohartarazpena egin du. Kontatu du gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatzeko materiala "eguneratua eta oso txukuna" dela, eta gaur egun hizkuntza maila ez dela ikas prozesua euskaraz egiteko oztopo izango. Euskarazko eskaintza horren guztiaren gaineko informazioa <https://gidabaimena-keuskaraz.eus/> webgunean kontsulta dezakete interesdunek.

Ekimena euskara sustatzeko dirulaguntzen udal programaren barrukoa da, eta Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Autoeskolak Federakuntzak elkarrekin bultzatutako proiektuekin bat egiten du. Bide prestakuntzan euskararen presentzia areagotzera bideratuta dago.

Datozen egunetan, udalak formulario bat jarriko du bere atari digitalean Lasarte-Orian erroldatuta dauden pertsonen dirulaguntza eskatu ahal izan dezaten. Eskaera hori egiteko, eskatzaileek prestakuntza zein autoeskolatan egin duten ez dute kontuan hartuko.

Atal teorikoa euskaraz prestatzeko materiala "eguneratua" dago

GIZARTEA

Proiektu berri bat, Saharako haurrek uda Lasarte-Orian igaro ahal izan dezaten

Bost gazte sahararretatik lauk etxebizitza batean hartuko dute ostatu


Txintxarri

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak, Tolosaldea Sahararekin Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi dute neguan elkarlanean egindako sentsibilizazio kanpainaren ostean, familia bakar batek eman duela izena uda honetan harrera familia izateko. Horren aurrean, aipatu eragileek buru-belarri lan egin dute haur gehiagok herrira etortzeko aukera izan dezaten.

Horren emaitza da *Uda bat, bihotz bat*: Denon artean 5 haur saharar errefuxiatu Lasarte-Oriara lelopean aurrera eramango duten proiektu pilotua. Horren helburua da, esan bezala, beste lau haurren etorrera bermatzea, haur horiek kanpamentuetatik irteteko premia larria baitute. Udan, Tindufeko desertuan 55^otik gorako tenperatura "jasangaitzak" nozitzen dituzte, eta gurean "oinarriko beharrik asetu" ahal izango dituzte. Elikadura egokia jasoko dute, eta osasun azterketa sakonak ere egingo dizkiete; finean, bestelako errealitate bat ezagutuko dute. Desertuko hareatik haratago, haur horiek lehen aldiz itsasoa, igerilekua, mendia, zuhaitzak, loreak eta errekek ikusi eta sentitzeko aukera ere izango dutela azpimarratu dute ekimenaren arduradunek. Gainera, beraien herriaren egoera gogorra lau haizeetara zabaltzeko "enbaxadore txiki" gisa arituko dira gure artean.

Komunitatearen indarra: etxe bat denon artean

Haur horietatik lauk herrian utzitako etxe batean igaroko dute uda, eta uneoro begiraleen laguntza eta zaintza izango dute. Proiektu "interesgarri eta aberasgarri" hori aurrera eramateko, ordea, herritarren babesa ezinbestekoa izango dela ere ohartarazi dute: "Gazte horiek ekipajerik gabe datoz, soinean dutenarekin bakarrik, eta gure esku dago bi hilabetez Lasarte-Oria oporleku soil bat izan beharrean, beraien bizitza hobetuko duen komunitate solidario bilakatzeara".



Sara Etxeberria artista herritarrak sortu du kanpainaren irudia. SARA ETXEBERRIA

Laguntzeko modua

Herritar bakoitzak bere aukeren arabera egin dezake ekarpena, hala nola haurrak herrira etorri aurreko prestaketa lanetan edota gaztetxo horien oporraldian zehar burutu beharreko zereginetan. Babesleak ere ezinbesteko dituzte. Horien ekarpenarekin, haurren bidaia gastuak edota bi hilabeterako elikadura gastuei aurre egin ahal izango die Oporrak Bakeanek. Hala, ohartarazi dute aurrera eramango dituzten ekintzak finantziatzeko pultsera batzuk jarriko dituztela salgai. Herriko komertzioetan erosi ahal izango dira horiek, bi euroren truke. Herriko tabernetan itsulapikoak ere jarriko dituzte, hala nahi duen orok bertan bere ekarpen ekonomikoa ere egin dezan.

Materialen dohaintzak egiteko aukera ere badago. Hilaren 25etik ekainaren 7ra bitartean bilketa kanpaina berezia aurrera eramango dute herriko hainbat

lekutan. Ikastetxeetan elikagaiak bilduko dituzte, eta farmazietan, berriz, kaxa bat jarriko dute haurrentzako ibuprofenoak, botikineko materialak eta kremak pilatu nahi dituzte. Zabaletako festetan, berriz, ekainaren 2, 3 eta 4an txoznagunean materiala bilduko dute. Hala, Ttakun Kultur Elkarteko Gazte Kluba egitasmoko lagunek, Oporrak Bakean eguna egingo dutela iragarri dute. LH 4-5 eta 6. mailako gazteek henna tailerrean parte hartuko dute, arabiar idazkera ikasiko dute eta saharar jantziak eta tea probatzeko abagunea ere izango dute.

Hori horrela, zerbaitetan laguntzeko prest dagoen herritarri dei egin diote elkartarekin harremanetan jartzeko. Horretarako, 656 77 81 97 telefono zenbakira deitu edo idatzi behar da, edo bestela, helbide elektronikoa honetara idatzi *sahararekin-lasarteoria@gmail.com*.

NEURE KABUZ

Aire freskoa edo zoko usaina?



AIZPEA AMAS
KOLABORATZAILEA

Zuek ere nabaritzen duzue, ezta? Eguzkiak gure azala pare bat egunez laztandu du, eta beste aldarre bat nabaritzen da kalean. Irrikitan ginen mahuka luzeak harrika bota eta, behingoz, soinekoa, galtza motzak, sandaliak eta bikiniak ere (zer arraioi!) janzteko. Egunak luzeagoak dira, uda badator eta ikasturte bukaeran gaude jada. Nahikoa ibili gara barrura begira neguan, bada garaia, orain, kaleaz, naturaz eta ekitaldiez gozatzeko.

Realaren Koparen garaipena ospatu genuen, baita Sorgin Jain 25. urteurrena ere, eta asteburu honetan Txaranga Eguna dator Udaberriko Festarekin batera. Ate joka dira ere Zabaletako jaiak, eta nola ez, San Pedro Jaiak. Batean eta bestean bada zer entzun, ikusi eta gozatu.

Eta giroa berotzen hasteko, udalak aurtengo kontzertuen kartela aurkeztu du, modu (nolabait esatearren) original eta umoretsu batean. Inor ez du hotz utzi kontzertuak iragartzeko alkateak eta Jaietako zinegotziak parte hartu duten bideoak, eta norbaitek ikusi ez badu, sare sozialetan ikuskatzera gonbidatzen dut.

"Bitxia da bederen Euskal Herriko musikak bizi duen loraldi honetan hain euskal talde gutxi iragarri izana"

Bideoaren forma edo tonuaren gaineko iritzia niretzat gordeko dut, baina edukiaren gainean hausnartzeko zenbait motibo topatu ditut. Euskararen presentzia edo presentzia eza da, boteprontoan aipatuko nukeena, esketzaren hondarreen baino ez baita entzuten. Begi bistakoa da gidoia gaztelaniaz pentsatuta dagoela, baina benetan

larriena euskarazko bertsio bat egitea ez kontenplaztea iruditzen zait, edo egin badute ere, lehentasunik edo garrantziarik eman ez izana. Justu-justu igo dituzte, bideoa publikatu eta gerora, pare bat *reels* euskarazko azpigituluekin.

Bestalde, kartelari begiratuta, azkenaldian baino euskal talde gutxiago daudela sumatu dut (euskaraz kantatzen dutenez ari naiz), eta bitxia da bederen Euskal Herriko musikak bizi duen loraldi honetan hain euskal talde gutxi iragarri izana.

Udalak halako formato umoretsu bat erabili izanak aire freskoa ekarri du batzuen iritziz, baina usaimena pixka bat zorrotz gero, ez al da betiko zoko usaina antzematen?

HEZKUNTZA

Mende erdia festa handi batekin ospatuko dute

Ez dira egunero betetzen 50 urte eta, urtemuga berezi hori merezi bezala ospatzeko asmoz, egun osoko jai berezia prestatu dute Zubieta Lanbide Eskolako kideek, Zubieta Herri Batzarrarekin eta Jai Batzordearekin lankidetzan. Helburua da urte horietan guztietan hezkuntza zentro horren parte izan diren pertsonak berriro elkartzea: ikasle ohiak, gaur egungoak, irakasleak, familiak, erretiratuak, herritarrak eta, oro har, komunitate osoa.

"Eskolaren eta herriaren arteko lotura ospatzeko topagune handi bat" izango da hilaren 30eko festa, antolatzaileen esanetan. Zubieta Lanbide Eskolan 480 pertsona ikasten ari dira gaur-gaurkoz eta horietatik 137 lasarteoriatarak dira. "Horrek erakusten du eskolako lotura estua izan duela udalerriarekin eta antolatzaileek ilusio berezia dute bertakoekin ere partekatzen". Bestalde, jakinarazi dute bazkarirako txartelak salgai daudela eta 25a izango dela erosteko azken eguna, astelehena. Joan nahi dutenek Eskolan bertan, Alamandegi zein Bordatxo tabernan eros ditzakete txartelak.

GIZARTEA

Askotariko deialdi eta hitzorduak aurrera eramaten ari dira, LGBTIQ+ fobiaren aurka

Eskualdeko manifestazioa egin dute Hernanin eta askotariko ekintzak herrian

Txintxarri

Pasa den hilaren 17an, igandearrekin, LGBTIQ+ Fobiaren Aurkako Eguna izanik, Buruntzaldeko mugimendu transmaribibolloak Hernanin mobilizazioa aurrera eramaten zuten "Erasoen aurrean, erresistentzia transmaribibolloa!" lelopean. Eragileak gogorarazi zuten azken hamarkadak eman dituela sexu genero askapen mugimenduetatik bizitza eredu normatiboak eragiten dituen indarkerien aurrean euren gorputzak jartzen, LGBTIQ+ fobiak dituen aurpegi ezberdinak salatzen eta borrokatzen. Hori horrela, "aski dela" esateko baliatu zuten deialdia.

Nabarmendu zuten erasoen atzean, "pentsamendu, jarrera eta jokabide LGBTIQ+ fobia, klasista, sexista edota arrazista duten pertsonak" daudela eta erantzukizuna horiena dela, baina jarrera horiek "indartu eta justifikatzen dituzten komunikabide eta instituzio ezberdinetan entzuten dituzten gorroto diskurtsoak" ere jarri zituzten jomagan.

Eragileak "kezagarritzat" jo zuten "eskuin muturraren gorakada", eta salatu zuten, "inpunitate osoz jarduten dutela sexu eta genero disidenteentz aurka". Hori horrela, beharrezkotzat jo zuten "kaleetan antolatzen jarraitzea". Horretarako, ordea, ohartarazi zuten ezinbestekoa dela "Buruntzaldeko mugimendu transmaribibolloa eta feminista indartzea". Gauzak horrela, Buruntzaldeko LGBTIQ+ pertsona guztiei zein sexu-genero disidentzia guztiei artikulatza eta antolatza animatu zituzten.

Hausnarketarako ekintzak

LGBTIQ+ fobiaren aurkako nazioarteko egunaren (maiatzak 17) eta LGBTIQ+ harrotasunaren nazioarteko egunaren (ekainak 28) harira, hainbat ekintza iragarri zituen Lasarte-Oriako Udalak. Horien artean lehena, *Zaindu maite duzun oro* tailerra aurrera eramaten behar zuten Somoslas Bitxis-ek, baina osasun arra-



'Erasoen aurrean erresistentzia transmaribibolloa!' lelopean mobilizatu ziren. NOAUA

zoiak tarteko, bertan behera utzi zuten saioa. Hilaren 21ean, berriz, *La rebelión de las hienas* eta *Las hermafroditas del siglo XXI* liburuak aurkeztu zituen Mer Gomez idazleak kultur etxean.

Datorren ostegunean, hilak 28, berriz, *Alternativas para hacer frente a las violencias por motivos de orientación sexual e identidad de género* mintzaldia emango du Elena Olaortua Gonzalezek, gaztelaniaz. 18:30ean izango da, Antonio Mercero aretoan. Ekaineko ere programatuta daude hitzordu gehiago. Ekainaren lehen egunetik azkenera, 1etik 30era, *Gorputzak* izeneko erakusketa ikustera joateko aukera izango dute herritarrek. Udal Liburutegian egongo da hori bisitagai, liburutegia irekita dagoen orduetegan.

Ekainaren 5ean film laburren emanaldia aurrera eramango dute. Zinegoak eragilearekin elkarlanean egingo duten jarduerak izango da. Manuel Lekuona Kultur Etxeak proiektatuko dituzte ikus-entzunezkoak, 18:30etik aurrera.

Danele Sarriugarte idazlearen *Beste zerbait* liburuaz solastatzeko saioa iragarri dute ekainaren 9rako. Irakurle Txokoa-ekin eta Transmaribollo kolektiboarekin elkarlanean antolatutako jarduerak da eta kultur etxean aurrera eramango dute. Euskaraz izango da, eta honako ordutegian: 17:30etik 19:00etara.

Ekainaren 16an Inii Etxezarreta Toca eta Elene Lopetegi

Olea eurek idatzitako *Garen piztiaz beste. Hitz egin liteke euskal transfeminismoaz?* liburuaz solastatuko dira. EIHERA kooperatibarekin elkarlanean prestatutako saioa da, eta euskaraz aurrera eramango da. Antonio Mercero aretoan izango da, 18:30ean.

19an, berriz, *La misteriosa mirada del flamenco* filma erakutsiko du Okendo Zinema Taldeak. Kultur etxeko auditorioan izango da hitzordua, 20:00etan.

Adierazpen instituzionala

Lasarte-Oriako Udalak beste behin berretsi du "pertsona guztien eskubideen defentsarekiko duen konpromisoa irmoa, salbuespenik gabe". Areen ere, xede du LGBTIfobiari "modu egituratu" aurre egitea. Hori dela-eta, politika publikoak garatzen eta ezartzen jarraituko du, besteak beste.

Urratsak eman diren arren, jakina da oraindik ez dela "benetako berdintasuna" lortu. Azkenaldian gora egin dute gorroto diskurtsoak eta espazio publikoetan emandako erasoak. Horren aurrean, ezinbestekoa da "pertsona oro askatasunez, ikusgarritasunez eta eskubide guztiekin bizitzea, gizarte bidezkoagoa, inklusiboagoa, antzagoa eta berdinezaleagoa erakitzeke". Aniztasuna bermatzeko, diskriminazioari aurre egin behar zaio, baita inguru seguruak sortu ere.



Ford etxeko auto klasikoekin topaketa aurreneko egingo dute gurean. ISAAC FARRE RICO

Gurpilak eta bolanteak ditu gure historiaren zati garrantzitsu batek

Txintxarri

"Ekainaren 6an Lasarte-Orian egingo duguna ez da izango Ford etxeko auto klasikoekin topaketa soilik; gure historiaren zati garrantzitsu bat bizirik mantentzeko ariketa ere izango da". Luis Mari Carballoren hitzak dira, ekimenaren antolatzailetako batenak. Andatza plazan elkartu dira talde eragileko zein udaleko ordezkariak, egitarauaren eta bestelako kontuen berri emateko. Hasi aurretik, agerraldian izan duten eguraldi berbera eskatu dute jarduerarako.

Club Clasicos por España eragileak bost urte daramatza etxe horretako ibilgailuen eta gidarien topaketak antolatzen. Esan be-

zala, udalerrian egingo dute aurtengoa, 08:30etik hasi eta 21:00etara arte: harrera, ibilbidea, talde argazkia, bazkaria, kontzertuak... Denetik antolatu dute egun horretarako. Carballok eskerrak eman dizkie babesleei eta, batez ere, herrikoak direnei: Andatza taberna, Aitonak okindegia, Michelin lantegia eta Udaberri elkarte gastronomikoa.

Horrekin batera, udal ordezkariak ere estimatu die ekitaldiari emango dioten babesak: "Eskerririk asko herriari eta herritarroi bizitza ematen diguten jardueren aldeko apustua egiteagatik", nabarmendu du. Amaitzeko, topaketan parte hartzeko deia egin du.

KULTURA

Komedia beltza, algaratik



TXINTXARRI

Trajea antzezlanaren emanaldia egin zuen Txalo Produzioak konpainiak, Manuel Lekuona kultur etxean, hilaren 16an. Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza aktoreak igo ziren oholtzara. Saltoki handietako merkealdien lehenengo eguna. Hiriburua. Jende mordoa arrapaladan sartu delarik, istripua jazo da, eraikinaren atean. Testuinguru horretan, segurtasuntzaintzaile eta negozio gizon batek elkar ezagutuko dute.



Arkupe tabernako kideek zunba saio animatua aurrera eramán zuten Ama Brigitarren komentu pareko plazan. TXINTXARRI



Itsaski paella goxoa jatera animatu ziren zenbait herritar. TXINTXARRI

EKONOMIA

Udaberriko Festa ospatzen hasi dira Aterpea elkarteko bazkide diren merkatariak

Eskaintza, tailer eta ekitaldi gehiago prestatu dituzte hilaren 22rako eta 23rako

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Udara ailegatzeko gutxi falta den arren, udaberria gozatzeko jaia antolatu du Aterpeak, urtero legez. Festari ekiteko dantzaz eta janariaz baliatu ziren, besteak beste. Izan ere, Arkupe tabernako kideek paella jana egin zuten hilaren 16an. Itxura ederra zuen, eta bertaratutakoek zaporea ere itzela zela jakinarazi zuten. Dena den, bazkariarekin hasi aurretik, zunba saioa egin zuten Patricia Martinen neskek. Ederki aritu ziren dantzan, Ama Brigitarren Komen-

tuaren aurrekaldean. Erakustaldi laburra izan zen, baina partaide baten urtebetetzea lore sorta batekin ospatzeko tarterik egin zuten.

Bigarren asteburua

Hasteko, hilaren 22an eta 23an, bezeroentzako eskaintzak eskainiko dituzte honako negozio hauek: Mabel Moda, Bideolagunak, Lilura Liburu denda, Imagine jantzi denda, Amali jolas denda, Urruzola mertzeria, Olmi mertzeria eta Namie Sushi. Bestalde, hilaren 22an, ostirala,

Landatu zure landarea ekimena aurrera eramango dute Ormazabal Loradendan, 17:00etatik 19:00etara, eta Lilura Liburudendan, haurrentzako saioa.

Hilaren 23an, berriz, txu-txu trena ibiliko da herrian zehar, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Halaber, *Udaberri lore berri* izeneko jarduerarekin gozatzeko aukera izan da 11:00etatik 13:00etara, Amali jolas denda. Egun berean, alde batetik, musika akustikoak girotutako bermuteoa ospatuko dute Andatza tabernan, 12etatik

15:00etara, musika akustikoak girotuta, eta bestetik, Oria Txiki Tabernan, parrillada, 13:00etatik 15:00etara. Ekimen horrekin bukatzeko, musika emanaldiak: 19:00etatik 21:00etara. Buenetxea tabernan ere kontzertuak izango dira, 18:30etik 21:30era.

Udaberriko festarekin amaitzeko, barrigorri parrillada herrikoia eta barrikotea egingo dute Aterpeko kideek Okendo plazan, 18:00etatik 20:00etara. Arestikoan aipatutakoarekin batera, egunotan, kanpainarekin bat egindako establezimenduek zozketa txartelak banatuko dizkiete erosketak eginiko bezeroei. Bost erosketa txartel zozkatuko dituzte guztira: 500 euroko bat eta 250 euroko lau. Txartel horiek kanpainako parte hartzaileen negozioetan erabili beharoko dira.

Bigarren asteburukoak

Eskaintza bereziak

- Mabel, Bideolagunak, Lilura, Imagine, Amali, Urruzola, Olmi eta Namie Sushi komertzioetan.

Tailerrak

- Gaur, hilak 22, 17:00etan, Ormazabal loradendan, Landatu zure landarea.
- Bihar, hilak 23, 11:00etan, Amali jolas denda, Udaberri, lore berri jarduera.

Egitaraua, osorik, 15. orriko Agenda atalean.

EKONOMIA

Atzerrian egindako ikasketak homologatzeko saioa egingo dute

Antonio Mercero aretoan elkartuko dira hilaren 26an, asteartearrekin, 10:00etan. Zerbitzu hori doakoa da

Txintxarri

Parekatu ekimenaren berri eman dute Beterri-Buruntza Mankomunitateko ordezkari Silvia Gilak eta udaleko Sozioekonomia zinegotzi Nuria Fernandezek. Azaldu dute helburua dela atzerrian egindako ikasketak eta prestakuntza ibilbideak baliozkotzeari buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza ematea. Norabide horretan, hilaren 26an Antonio Mercero aretoan egingo dute doako saio bat, gaztelaniaz, 10:00etatik 12:00etara. Eskualdeko udalerritan bizi eta

mota horretako formakuntza duten pertsonentzat prestatu dute ekimena.

Eskualdeko beste udalerrri batzuetan martxan jarri dute egitasmoa eta "interes handia" piztu du bizilagunen artean, Gilak eta Fernandezek nabarmendu dutenez. "Batez ere, Espainiar Estatutik kanpo lortutako prestakuntza akademikoa eta profesionala balioesteko zailtasunak dituzten pertsonak etorri dira", gehitu dute.

"Laneratze kualifikatua geldiarazten duten oztopo buro-



Silvia Gilak eta Nuria Fernandezek aurkeztu dute egitasmoa. LASARTE-ORIAKO UDALA

kratikoak" gainditu beharraz jardun da Sozioekonomia zinegotzia: "Inoren garapen profesionala ez dadila galgatu ez dakielako nola eman balioa aurretiko prestakuntzari. Parekatu ekimenaren bidez en-

plegu duinari eta enplegarritasunaren hobekuntzaari atea irekitzen diogu Lasarte-Orian, hemen bizi den talentuari lan merkatuan erabat integratzeko aukera emanda". Titulu homologatu bat izatearen garrantzia

azpimarratu du Gilak: "Kualifikazio handiagoko eta lan baldintza hobegoko postuak lortzeko laguntza emateaz gain, prestakuntza arautuarekin jarraitzeko aukera ematen du".

Hilaren 26ko saioa Bidez Bide elkarteko aditu batek emango duela jakinarazi dute bi ordezkariak: aurrez aurreko bi orduko ikastaroa egingo dute eta, ondoren, bertaratzen den pertsona bakoitzak 30 minutuko banakako aholkularitza txanda izango du aukeran.

30

MINUTUKO TXANDAK

Bi orduko tailerraren ostean, partaide bakoitzak ordu erdiko aholkularitza tartea izango du.

KULTURA

Maiatzeko hirugarren saio berezia gurean egin du Euskal Herriko Casteller Taldeak

Bi urteko ibilbidea egin dute; 60 bazkide dituzte eta 180 bat parte hartzaile

Lierni Apaolaza Urdanpileta

16:30ean ailegatu zen Euskal Herriko Casteller taldea Okendo plazara hilaren 16an. Giro onean, gerrikoa edo *faixa* jartzen lagundu zioten elkarri; geroko erakustaldirako beroketa lanak ere egin zituzten.

Pixkanaka-pixkanaka hasi ziren *castells*-ekin. Izan ere, hasieran, enparantzako kale argiez baliatu ziren oinarri eta sostegua izan zezaten figuren gaineko pertsonak. Bi taldetan banatuta, ederki moldatu ziren, eta behar izan zenean, aholkuak eskaini zizkieten eskarmentudunek hasiberriei. Kasik parte hartzaile guztiak igo ziren goraino, eta zenbaitetan, bi pertsona izan ziren tente.

Giharrak berotuta eta bestearekiko zein norberarekiko konfiantza landuta, irudi handiagoak egiteari ekin zioten



Pixkanaka-pixkanaka osatu zituzten 'castells'-ak edo giza gazteluak. TXINTXARRI

topaketara bertaratu zirenek. Kasu horretan, plazaren erdian ipini ziren; inolako oinarririk gabe, hain zuzen. Txanda horretan, bi taldeak desegin eta denak batera aritu ziren elkarlanean. *Casteller*-en xarmarekin

txundituta, publikoa bildu zen euren inguruan.

Sorrera eta parte hartzea

2024ean sortu zen Euskal Herriko Casteller taldea. Kataluniatik Euskal Herrira etorrita-

ko hainbat lagunekin eta euskaldun mordoarekin hasi zen proiektua. Hilabete batez, Euskadiko hiru hiriburuetan (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) entrenatzen arituta, batzar sortzailea eratu zuten Gasteizen eta hura izan zen abiapuntu. Interes handia piztu zuelarik, berehala errotu zen multzoa. Gaur egun, 60 bazkide dira, eta 180 bat lagunek osatzen dute Euskal Herriko Casteller taldea.

Parte hartzeko gogorik izanez gero, prozesu erraza jarraitu behar da. Alde batetik, webgune WhatsApp taldean sartu daitezke. Bestetik, aukeran, taldearen Gmail helbidera ere (info@ehcastellertaldeak.eus) idatz dezakete. Adin guztietako pertsonak dira ongietorriak, kideek nabarmendu dutenez.

Bestalde, entseguetarako ez da ezer apartekorik behar: blusa zahar bat, bakeroak eta txankletak. Astean behin egiten dituzte entseguak bai Donostian, bai Bilbon, eta larunbatetan, entsegu orokorrak. Azken horren kokalekua aldatu egiten dute parte hartzaileek. Bihar, hilak 23, Bilbon gauzatuko dute prestaketa.

GIZARTEA

Zientzia freskoa edan dute 'Pint of Science' topaketari esker



Buenetxea, jendez lepo. TXINTXARRI

Zientziaren dibulgaziorako gune bilakatu zen Buenetxea kafetegi-taberna hilaren 18an. Pint of Science topaketa bigarrenez ekarri zuten Lasarte-Oriara eta edonorentzako moduko hitzaldiak eman zituzten hiru adituk: Javier Esteban Ochoa de Eribek, Gabriel Molina Terrizak eta Paula Malo de Molinak. Ezagutzak partekatu eta ikus-entzuleekin eztabaida sustatuta, alor hori edonorentzako eskuragarria eta gozagarria izan daitekeela erakutsi zuten. Epidemiak, neutroiak edota teknologia kuantikoak izan zituzten hizpide.

KULTURA

Kalitatezko reggae kontzertuek girotu dute Andatza plazako festibala

Sei talde eta DJ batek parte hartu dute musika ekitaldi horren bigarren edizioan

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Arratsaldetik gauerdirako festibala izan zen hilaren 16koa. Andatza plazan eszenatoki handia ipinita, jende mordoak gertaratu zen lehenengo ordutik. Herritar asko, eta ingurutik etorritako beste hainbeste izan ziren Sasoeta auzoko enparantza horretan.

DJa aritu zen beroketa lanak egiten. Haren eskutik hasi zen jaia, 17:30ean. Jarraian, sei taldek jo zuten. Bakoitzak 45 minutuz girotu zuen enparantza. Txanden artean 15 minutuko atsenaldia eginda, musikariekin argazkiak ateratzeko tardez baliatu ziren publikoko zenbait pertsona etenaldi horietan.

Espainiar estatutik eta Euskal Herriko etorritako artistak oholzaratu ziren: Belen Natali, Ago-teak, Eira, Morodo, Matah DJ eta Green Valley, hain zuzen

ere. Bakarka, taldean, zuzeneko instrumentuekin eta digitalki sorturiko baseak; eskaintza zabal izan zen eta harrera beroa izan zen publikoaren aldetik, dantzan edota abeslariarekin batera abestuz, gogotik gozatu

baituzten. Indarberitzeko asmoz, txoznan edota foodtruck-etan edatekoa zein jatekoa hartu zuten. San Pedro Jaiak ailegatzeko hilabete eskas falta delarik, beroketa lan itzela izan zen Andatza Festibala.



Agoteak taldekoen kontzertuko une bat. TXINTXARRI

KULTURA

Artearen bidez elkar topatu izanaren zoriona ospatuko dute hiru pianojolek

Txintxarri

Udalerrian musikaren kultura doan zabaltzeko asmoz, urteak daramatza Danok Kide elkarteak Musika Topaketak antolatzen. Hogeigarren edizioa bihar (hilak 23) aurrera eramango dute eta "emanaldi berezia" ekarriko dutela iragarri dute eragile horretako kideek: *Piano baten inguruan batzen gaituena*. Instrumentu horrekin ariko dira Jakes Txapartegi, Esther Barandiaran eta Iñaki Salvador musikariak, bakarka batzuetan eta elkarrekin besteetan. "Sorkuntzaren aldaera anitzak esploratuko dituzte", aurreratu dute antolatzaileek. "Ikuskizuna, hala ere, ez da musikan soilik oinarrituko; hitzak ere tokia izango du, hari narratibo gisa pieza guztiak lotzeko".

Txapartegiri buruz, adierazi dute "pasioak eta oztopoak gainditzeak" ehundu dutela bere bizitza. "Itsu izatea, muga behar-rean, ikuspegi berezia garatzeko bidea eman dio". Beraren

irakasle eta gidari izan da Esther Barandiaran. "Bien arteko lan-kidetzan, aitortzan eta pazientzian jositako burbuila ederra sortu dute".

Bide emankor horretan eza-gututako artistetako bat da Iñaki Salvador: "Aukera izan du Jakesen eta Estherren lankidetzaren hurbiletik bizitzeko eta erronkara batu da: kontzertu partekatu baten bidez oholtzara eramatea sormenaren eta adierazpen artistikoaren pasioa".



Hiru musikariak. DANOK KIDE

KULTURA

Zulo beraren kontuetatik kantu eginda aurrera eraman dute ipuin kantaketa

'Ipuin kantaketa' saioa aurrera eraman dute Eider Rodriguez idazleak eta Anari musikariak, berriki, Lasarte-Orian. Zabaleta Auzolan elkartearen egoitzan izan da hitzordua; goxoa bezain intimoa

Maddi Noriega Zaldua

Hilero, literatur lan bat oinarri hartuta, solasaldiak aurrera eraman ohi ditu Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak. Saio horiez gain, ordea, beste formatu batzuk eskaini eta literatura jende gehiagorengana zabaldu asmoz, bestelako ekimenak ere antolatzen ditu. Horietako bat izan zen aurreko asteko ostegun iluntzean, hilaren 14an, egindakoa. Kultur Etxeko aretoetako batean batu ohi dira normalean aipatu taldea osatzen duten kideak, baina oraingoan, Zabaleta Auzolan elkartearen egoitzara bertaratzeko deia egina zuten. Bertan egin zuten Eider Rodriguez eta Anariren Ipuin Kantaketa.

Bi protagonistak nagusiak ez zutera joandakoak aretora hel-

terako, dena prest zuten aipatu eragileko kideek. Loreekin atondutako oholta topatu zuten parez pare. Bozgorailu bana eszenatokian horren alde banatan, azken ilaran eseriko zirenen belarrietara ere iritsi zitezen Rodriguezek kontatu eta Anariek kantatutakoak.

Kontu eta kantuen aurretik, elkarrizketa

Horien emanaldiarekin hasi aurretik, ordea, Rodriguez elkarrizketatzeko tarte hartu zuten. Aintzane Usandizaga idazle lasarteoriatarra (eta Irakurle Txokoko dinamizatzailea) arduratu zen galderak egin eta tarte hori gidatzeaz. Ekitaldiak oinarri izan zuten *Dena zulo bera zen* ipuin-liburua da Errenterriko idazleak kaleratu duen



Jende ugari bertaratu zen Zabaleta Auzolan elkartera; ikusmin handia piztu zuen saioak. TXINTXARRI

azken lana, eta hain zuzen ere, horren gaineko zenbait galdera egin zizkion Usandizagak. Horiei erantzundakoei esker jakin ahal izan zuten entzuleek, adibidez, lanaren izenburua liburua bera idazten amaitu zuenean erabaki zuela, eta horren aurretik, liburuari beste titulu hau ematea pentsatu zuela Rodriguezek: *Dena su bera zen*. Sua, "poliki-poliki", zulo bilakatu zen.

Elkarrizketa horretan azaldu zuten ere idazterako garaian ez dela bizitzan sumatzen dituen zulo edo arrakalen bila jotzen, baina "karranka eginez, buruan "kolpeka geratzen zaizkion kontuak" azaleratu egiten direla bere kontakizunetan. Galeraz, endekatzeaz edota xamur, zaurgarri agertzeaz ere hitz egin zuten, horiek liburuan non eta nola plazaratu dituen ohartu ziren bertaratuak.

Besteei narratiba altuan kontatzeko egon daitekean ohitura faltari erreferentzia eginez, eskaintzen ari diren formatuarekin nola hasi ziren kontatzeko ere eskatu zion Usandizagak Rodriguezi. Horri ihardetsiz, esan zuten Anari "asko miresten duen artista" dela, eta "halere, laguna", eta hori hala izaki, berarentzat "plazer handia" dela oholtzan elkarrekin aritzea, gustura aritzen dela. Gaineratu zuten "atsegina" zaiola berak "bakardadean idatzitakoak ahots goraz" irakurtzea.

Hitza eta musika

Kontu horiek kontatuta, Usandizagak oholta utzi, eta ordura arte berak erabilitako aulkia hartu zuten gero Anariek. Eta orduan ekin zion bikoak ipuin

kantaketari. Hizlariaren goxotasuna eta abeslariaren indarra txirikordatuz joan ziren emandiko osoan zehar.

Zulo, zirrikituetatik abiatuta, asko eta askotarikoak izan ziren sortzaileek entzuleei kontatu eta kantatutakoak, hala nola, inork, inoiz, nonbait edo norbaitengan utzitako aztarnak, edota norberak inoiz bizi ahal izan duen azalberritzea.

Ipuin kantaketak iraun bitartean, oholta izan zen argiztatutako eremu bakarra. Goxoa izan zen giroa, eta aretoko leiho eta gortinen arteko zirrikituetatik sartutako argi izpiek sortutako itzalek ere atondu zuten eszenatokia.

Saioa borobiltzeko, mokadutxoak egin zuten bertaratuak, elkarrekin. Iritziak trukatzeko ere baliatu zuten tarte hori.



Nahia Intxaustirekin solastatu dira, berriki, Irakurle Txoko kideak. TXINTXARRI

Zainetako zilarraz hitz egin dute

Zainetatik zilarra poema liburua argitaratu berri du idazle lasarteoriatarrek eta lan horri buruz aritu da, berriki, literatur txokoko kide dituenekin. Manuel Lekuona Kultur Etxeko aretoetako batean egin dute oraingoan ere hitzordua. Ohi bezala, Aintzane Usandizagak gidatu du solasaldia, eta horri hasiera emateko, taldeko kideek irakurketaren gaineko hausnarketak eta iritziak partekatu dituzte idazlearekin. Sormen lan horren harira, TXINTXARRI aldizkariak elkarrizketa egin zion Intxaustiri. Hilaren 8ko aldizkarian argitaratu genuen paperezko edizioan eta atari digitalean ere irakurgai dago.



Ipuin kantaketaren aurretik, Rodriguez elkarrizketatu zuten Usandizagak. TXINTXARRI



Sari banaketa ekitaldian, Beat Eroak ekimeneko protagonistak eta aurkezleak, elkarrekin, Astigarragako Erribera kulturgunean. AIURRI

EUSKARA

Beat Eroak: hitzarekin eta musikarekin jolasean

Beat Eroak ekimena antolatu dute Buruntzaldeko Euskara eta Gazteria Zerbitzuen lankidetzari esker. Odei Barrosok eta Telmo Trenorrek 11-16 urteko eskualde osoko gazte taldeak trebatu dituzte. Hala, hilabetea hastearekin batera egin dute sari banaketa ekitaldia

Buruntzaldea

Proposamen berritzailea egin du, aurrean, eskualdeko euskara zerbitzu mankomunatuak: kultura garaikidean sakontzeko Beat Eroak egitasmoa martxan jarri du. Lehen edizioako partaideak elkartu zituzten Astigarragako Erribera kulturgunean. Bertan, eskualdeko gazteek beren kantak aurkeztu zituzten jendaurrean, eta entzuleen zein epaimahaiaren botoak aintzat hartuta, Andoaingo gazteek sortutako *Laguntasuna* abestia

izan da irabazlea. Beat Eroak proiektua, Buruntzaldeko 11 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako rap tailerra eta lehiaketa izan da, helburu nagusia honakoa izanik: euskararen erabilera sustatzea. Letra eta musika sortzeko ekimena eskualdeko sei udalerritan antolatu da, hots, Andoain, Urnietan, Usurbilen, Lasarte-Oria, Hernanin eta Astigarragan. Otsailean abiatu eta udalerrri bakoitzean bina saio aurrera eramanez zuzentzen: bata,

otsailean eta, bestea, martxoan. Lehenengoan, Odei Barrosok rapero eta bertsolariarekin oinarri musikala aukeratu eta rap letrak landu zituzten. Bigarrenean, berriz, Telmo Trenor DJ

Kantu guztiak, Odei Barrosok raperoaren eta Telmo Trenor DJarekin batera sortuta dira

disco-jartzaile eta ekoizlearen laguntzarekin, landutako oinarri musikarekin eta osatutako letrarekin, kantua sortu eta grabatu zuten.

Saio horien ostean, udalerrri bakoitzak bere kanta argitaratu zuen, eta horien arteko irabazlea hautatzeko prozesua abiatu zen. Irabazlea, esan bezala, entzuleen eta epaimahaiaren botoen bidez hautatu dute. Hain zuzen, bozka emateko epea apirilaren 30era arte egon zen zabalik.

Lehen edizioko partaideak

Udalerriz udalerriri, talde bakoitzak aukeratutako kantuaren izenburua eta partaideak:

Andoain

'Laguntasuna'

• **Partaideak:** Irati Hernandez. Euri Zubizarreta, Ekhi Ugalde, Aroa Etxarte, Jare Lizarralde, Malen Torres eta Aiur Garcia.

Urnietan

'Hau da'

• **Partaideak:** Iker Ramos eta Ramon Granca.

Hernani

'Denbora pasa'

• **Partaideak:** Daren Suso, Liher Arruarte, Axel Mendizabal eta Xabi Martinez.

Astigarraga

'Gazteen bizitza'

• **Partaideak:** Oier Lobato, Adei Larrañaga, Oier Casado, Markel Ruiz eta Adur Delgado.

Usurbil

'Larunbat gauak'

• **Partaideak:** Anne Lasa eta Katixa San Millan.

Lasarte-Oria

'Hauek dira'

• **Partaideak:** Ixone Acuña.

Kantu guztiak YouTubean daude entzungai eta ikusgai Odei Barrosok raperoaren laguntza izan zuten kantuaren sorkuntzan. Eta Telmo Trenor DJarekin batera sortu zuten musika. Lanketa horien emaitza dira sei abestiak eta guztiak batuta aurki daitezke webgune honetan: euskaraburuntzaldea.eus/beat-eroak. Bertan ageri da kantu bakoitzaren leihotxo, izan ere, YouTubean igota daude Beat Eroak egitasmoaren proposamenak.



EUSKARA

"Sariaz gain, esperientzia oso atsegina izan da"

ANDOAINGO TALDEA BEAT EROAK TXAPELKETAKO IRABAZLEAK
Irati Hernandez, Euri Zubizarreta, Ekhi Ugalde, Aroa Etxarte, Jare Lizarralde, Malen Torres eta Aiur Garcia zazpikotea izan da lehen edizioko irabazlea

Buruntzaldea

Nola sentitu zarete saria jasotzean?

Oso pozik gaude, ez genuen espero. Ez genuen uste azkenak izango ginenik, ezta lehenengoak ere. Sariak ilusio handia egin digu, baina, sariaz gain, esperientzia oso atsegina izan da. Errepikatzea, zalantzarik gabe.

Zuen abestian jorrotutako gai nagusia laguntasuna izan da. Zer dela eta erabaki duzue horren inguruan abestea?

Abestian esaten dugun bezala, lagunak bizitzako parte oso garrantzitsua dira. Elkarren artean asko laguntzen gara, eta laguntasunak mantenduko ez bagenu, ezingo genituzke gauza asko egin. Lagunen beharra dugu.

Zuen abestiaren kasuan, zien uste duzue izan dela saria irabazteko gakoa, letraren lanketa ala base musikaren aukeraketa?

Letra, zalantzarik gabe. Oso esanahi polita du, eta oso ondo adierazten du guk laguntasunaren inguruan pentsatzen duguna.

Saria bideoklip profesional bat egitea da. Badakizue nola egingo duzuen?

Oraindik ez. Baina oso ilusioak gaude. Ez dakigu ea noiz grabatuko den, eta ea gaia aukeratzeko aukera izango dugun. Andoain aterako da seguruenik, baina ondo egongo litzateke beste herri batzuek ere azaltzea, adibidez, lehiaketan parte hartu dutenak. Hala ere, ideia batzuk baditugu. Adibidez, oso polita izango litzateke abestiaren errepika Andoaingo Goikoplazan grabatzea, elizaren ondoan, adibidez.

Zuen kasuan, hainbeste partaide izanik, nola moldatu zarete denen artean abestia osatzeko? Denon artean antolatu ginen, eta ondo moldatu gara. Lehe-



Irabazleak eta aurkezleak, elkarrekin. AIURRI



Ikusle ugari bertaratu zen sari-banaketa ekitaldira. AIURRI

nengo, bakoitzak bere zatia egin zuen. Ondoren, bakoitzak bere zatia aurkeztu, eta denon artean abestiaren errepika osatu genuen. Beste herriekin alderatuta, gu izan gara partaide gehien izan dituenak, eta hori positiboa izan da, ideia desberdinak batuta rapa politoa baita.

"Rap abesti bat euskaraz egitea oso esperientzia polita izan da, oso ilusioak gaude"

Lehen edizioan parte hartzea, zer nolako esperientzia izan da zuentzat?

Bai, oso polita izan da. Espero dugu hurrengo urtean parte hartzeko aukera izatea. **Zer moduz moldatu zarete Odei eta Telmorekin?**

Oso ondo, asko lagundu ziguten, eta haiengandik asko ikasi genuen. Erritmoa hartzea zaila izan zen, eta Odeik horretan asko lagundu zigun. Odei eta Telmo profesionalak dira, eta haien ekarpenak oso baliagarriak izan dira. Horrez gain, oso jatorrak dira. Finean, rap abesti bat euskaraz egitea oso polita izan da.



Enara Dominguez eta Yan Pinto, lehiaketaren aurkezleak. AIURRI

"Oso dinamikoak iruditu zaizkigu kantuak"

YAN PINTO ETA ENARA DOMINGUEZ
AURKEZLEAK

Aktore gazteek ekitaldia gidatu dute

Buruntzaldea

Nolakoa izan da emanaldia? Zuen kasuan, biak antzezleak zarete. Ohituta zaudete jendaurrean aurkezpenak egitera ala ez?

YAN PINTO. Bai, baina, hala ere, beti sorrarazten digu urduritasuna.

ENARA DOMINGUEZ. Hori da. Urduritasuna ez da inoiz galtzen. Baina beharrezkoa da; beti behar da tentsio puntu hori.

Emanaldian, haurrak ez ezik, gurasoak ere egoteak errespetua eman dizue?

E.D. Niri umeek errespetu handiagoa ematen didate. Akatsen bat baldin badago, gurasoak ulerkeragoak izaten dira.

Y.P. Bai, gurasoek badakite egoten, eta ez bazaie gustatzen, ez dute hain argi adieraziko. Umeak naturalagoak dira, eta haien iritzia gehiago adierazten dute.

Antzezle gisa, zein izan da zuen ibilbidea?

Y.P. Duela hiru urte graduatu ginen Bizkaiko Antzerki Ikastegian. Enara antzerkigintzan ibili da, batez ere, eta ni, berriz, ikus-entzunezkoetan. Iaz Goazeneko aurreko ediziorako hartu ninduten, eta horretan aritu nintzen.

Zuen kasuan, rapa gustuko duzue?

Y.P. Bai. Egia da ez dudala asko kontsumitzen, baina asko gustatzen zait abesti batzuetan rap zatiak txertatzen dituztenean.

E.D. Bai. Txapelketak raparen inguruan ikasteko balio izan digu. Izan ere, proposamena jasotzean, raparen inguruko informazioa bilatzen hasi ginen, gaiaren inguruan behar adina jakiteko.

Y.P. Bai, eta informazio horri esker, guk ere gure abesti propioa sortu dugu, eta gaur aurkezteko aukera izan dugu.

Zer iruditu zaizkizue abestian?

E.D. Oso dinamikoak iruditu zaizkigu, eta nabaritzen da eurek sortu dituztela. Letren bidez, haiek biziutako esperientziak kontatzen dituzte, eta haien errealitatea islatzen dute.

Y.P. Bai, haien mundua eta pentsamenduak asko islatu dira abestietan. Errimak egiteko laguntza jaso dute, baina haien arrastoa nabari da. Hau da, ez dutela beste batek esandakoa idatzi, baizik eta haiek egin dutela. Musika aldetik laguntza handiagoa behar izan dute, baina asko ikasi dutela uste dut.

Bestalde, kanten artean ere desberdintasun handiak egon dira. Usurbileko bi partaideek, adibidez, rapa kantuarekin uztartu dute. Berezitasun hori asko gustatu zaigu.

Txintxarri

Eguzki Escalerilla taberna taldeak amaiera biribila eman zion Euskal Kopako txapelketari, garaipena erdietsi eta garaikurra jaso zuten.

Lasarte-Oriako kadeteek partidarik ez dute galdu lehiaketan zehar eta azken jardunaldian, ez zuten huts egin. Hilaren 16an, bigarren sailkatu zen Salburua FS Gorria taldearen aurka neurtu zituzten indarrak hori-beltzek Maialen Chourraut kiroldegian eta zaletuek hauspotuta, 6-4 irabazi zuten.

Neurketa amaitzean garaikurra jaso eta ederki ospatu zuten jokalariek, talde teknikoak eta senideek ere.

Ez dira Euskal Kopa jokatuko duten Eguzkiko ordezkari bakarrak izango, kadeteek Kopa eskuratuz lehiari agur esan zioten bitartean, gazte mailako ordezkariak txapelketa hasi berri dute. Lehen jardunaldian, hilaren 17an, Gramol bizkaitarra izan zuten aurrez aurre eta 3-1 garaitu zuten.

Infantilak, txapeldunorde

Hitzordu garrantzitsua zuten ere infantil mailako Eguzki An-



Eguzki Escalerilla taberna taldeko kideak, Euskal Kopako garaikurrekin. KARMEN HERRERO

ARETO FUTBOLA

Eguzki Escalerilla tabernak Euskal Kopa irabazi du Salburua Gorria garaituta

Eguzki Andatza taberna infantil taldea txapeldunorde izan da neurketa estuan

datza taberna taldeak, Gipuzkoako txapelketako finala. Lauburu KE Ibarra A izan zuten aurkari.

Ibartarrak 0-2 aurreratu ziren eta maldan gora jarritako partida berdintzea lortu zuen La-

sarte-Oriako taldeak. Azken minutuetan, ordeak, aurkariak 2 eta 3koa egin zuen eta herritarrek ezin izan zuten berdinketa eskuratu.

Gipuzkoa txapelketan, gainera, Eguzkiko beste hiru talde

ere sailkatu dira lehia ezberdinetarako azken faserako. Gazte zein kadete mailako taldeak Gipuzkoako finalerako finalerdiak jokatu dituzte; Erregional I. mailako taldeak, aldiz, kopakoak.



EGUZKI AF

Espainiako onenen artean

Peru Azcarate eta Noel Hernandez herritarrek bederatzigarren postua eskuratu dute Euskadirekin 12 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketan.

Multzoko lehia Kataluniaren aurka 5-0 galdu ostean, hirugarren sailkatzeagatik C Final Fourrean jardun zen Euskadi. Bertan lehenik Kanariar Uharteak (6-0) eta Ceuta garaitu zituen; azkenean 3na berdindu eta penaltietan erabaki zen irabazlea.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 23

- OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**
- Aiztondo - Ostadar SKT 16.00. Elbarrena, Zizurkilan.
- GORENGO MAILA**
- Vasconia CD - Ostadar SKT 18.00. Puio, Donostian.
- ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA**
- Texas Lasart. CF - Gure Txokoa KKE 17.30. Michelin kirol gunean.
- E., I. MAILA, KOPA, FINALERDIA**
- Ostadar SKT - Elgoibar CD 12.00. Atsokabar kirol gunean.
- OHOREZKO J. MAILA, IGOERA**
- Real Union SAD - Ostadar SKT 18.00. Gal, Iruen.
- JUBENILEN GORENGO MAILA**
- Zarautz KE C - Texas Lasart. CF 16.30. Asti Txiki, Zarautzen.
- JUBENILEN I. MAILA, KOPA**
- Ostadar SKT - Euskalduna A. SD B 15.30. Michelin kirol gunean.
- JUBENILEN I. MAILA, UD. KOPA**
- Texas Lasart. CF - Oiartzun KE D 15.30. Atsokabar kirol gunean.
- OHOREZKO K. MAILA, JAITSIERA**
- Añorga KKE - Ostadar SKT 12.00. Rezola, Donostian.
- IGANDEA 24**
- JUBENILEN GORENGO MAILA**
- Ostadar SKT - Ekintza KE 16.00. Michelin kirol gunean.

ARETO-FUTBOLA

LARUNBATA 23

- KADETE MAILA, FINALERDIA**
- Eguzki Escalerilla T. - Laskorain A 12.00. Maialen Chourraut kirol.
- EUSKADIKO KIROL JOKOAK**
- Eguzki Afko infantilak Gipuzkoako ordezkari modura lehiatuko dira Araba eta Bizkaiaren aurka. 10.30. Arrasaten.
- IGANDEA 24**
- E. I. MAILA, KOPA, FINALERDIA**
- Eguzki ISU Leihoak - Donipari B 11.15. Maialen Chourraut kirol.
- BOLEIBOLA**
- LARUNBATA 23**
- JUBENIL MAILA, 7-12 P.**
- Aidean ZKE B - Ostadar SKT 18.00. La Salle ik., Zarautzen.
- K. ERRENDIMENDUA, 1-6 P.**
- Tolobolei A - Ostadar SKT 12.30. Herrikide ik., Tolosan.
- OSTIRALA 22/IGANDEA 24**
- 1. NAZIONALERAKO IGOERA**
- Ostadar SKTko lehen taldea 1. Maila Nazionalerako igoera jokatzeko ari da. Valladolid, Gaztela-Manchan.
- PILOTA**
- OSTIRALA 22**
- SANTA ANA PALA TXAPELKETA**
- Bueno/Urkola - Jauregi/J.M. Arteaga 17.30. Loidibarren pil.

- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 2. MAILA**
- LAPKE - Intza (Olazabal) 18.00. 3. partida. Lazkaon.
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA**
- LAPKE - Intza (Elola) 17.45. 5. partida. Lazkaon.
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA**
- Gazteleku - Intza KE (Lopez) 18.30. 4. partida. Andoainen.
- LARUNBATA 23**
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 1 MAILA**
- Zarautz - Intza KE (Artetxe) 16.35. 2. partida. Zarautzen.
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 2. MAILA**
- Intza KE (Diaz de Gereñu) - Eibar 11.00. 2. partida. Michelin pil.
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 1. MAILA**
- Behar Zana - Intza (Jauregi) 16.00. 4. partida. Villabonan.
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 2. MAILA**
- Intza KE (Atorrasagasti) - Kuku 11.00. 3. partida. Michelin pil.
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA**
- Intza KE (Maiz) - Hernani 11.00. 1. partida. Michelin pil.
- IGANDEA 24**
- GOMAZKO PALETA, HERRIARTEKOA**
- Lasarte-Oria - Tolosa 11.00. Loidibarren pil.
- ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA**
- Gaztelupe - Intza (Lasa) 11.00. 1. partida. Zaldibin.
- ASTELEHENA 25**
- SANTA ANA PALA TXAPELKETA**
- Zarra/Martin - Etxezarreta/Sorrondegi 19.00. Loidibarren pil.

- Begiristain/Castro - Eleizegi/Gonzalez Jarraian. Loidibarren pil.
- ASTEARTEA 26**
- SANTA ANA PALA TXAPELKETA**
- Bueno/Urkola - Iparragirre/Astiazaran 19.00. Loidibarren pil.
 - Jauregi/J.M. Arteaga - Ortiz/Carbayeda Jarraian. Loidibarren pil.
- ASTEAZKENA 27**
- Kortajarena/G. Arteaga - Eleizegi/Gonzalez 19.30. Loidibarren pil.
 - Mendizabal/Urruzmendi - Begiristain/Castro Jarraian. Loidibarren pil.
- OSTEGUNA 28**
- Odriozola/Ollokiegi - Rekondo/Bazkez 19.00. Loidibarren pil.
 - Artetxe/Artetxe - Arruti/Errasti Jarraian. Loidibarren pil.
- GIMNASTIKA ERRITMIKOA**
- LARUNBATA 23**
- EUSKADIKO KIROL JOKOAK**
- LOKEko Aiala Jimenez gimnasta Euskadiko Kirol Jokoetan izango da lehian. Goiza. Eskoriatza.
- IGANDEA 24**
- EUSKADIKO TXAPELKETA**
- LOKEko amateur mailako gimnastek Euskadiko txapelketa jokatu dute. Egun osoa. Durango, Bizkaian.

IGERIKETA

- LARUNBATA 23**
- SAN MARCIAL SARIA**
- Buruntzaldea IKTKo igerilariek 31. San Marcial Sarian egingo dute igerian. 16.00. Azken Portu, Iruen.

ERRUGBIA

- IGANDEA 24**
- OHOREZKO MAILA, FINALERDIA**
- Vrac Q. Entrepinares - S. G. Liceo Frances 14.30. Valladoliden.

ATLETISMOA

- LARUNBATA 23**
- EUSKADIKO KIROL JOKOAK**
- Ostadar SKTko zein herriko atletek Euskadiko Kirol Jokoetan parte hartuko dute. Goiza. Plaiaundi, Iruen.
- GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
- Ostadar SKTko zein herriko atletak maila ezberdinetako jardunaldia lehiatuko dute. Arratsaldean. Arrasaten.

TXIRRINDULARITZA

- LARUNBATA 23**
- AITOR BUGALLO MEMORIALA**
- Andoingo Txirrindularitza Eskolako herritarrek Aitor Bugallo Memorialean parte hartuko dute. 16.30. Durango, Bizkaian.

ERRUGBIA

Racamongek eta Gaztedik Ohorezko B Mailarako igoera eskuratu dute

Txintxarri

Ohorezko B Mailako taldea da Gasteizko Gaztedi. Aizpea Racamonge herritarra kide duen eki-poak CN Poble Nou garaitu zuen hilaren 17an Bartzelonan (Katalunia) jokatu zen maila igoerako finalean.

Partidako lehen minutuetan lehia berdindua zirudien eta bi taldeek entsegu bana egin zuten.

Baina gasteiztarrek erasoan edeki borrokatu zuten eta entsegu, gauzate zein ostiko kolpeei esker, aldeko 5 eta 17koarekin iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian indartsu atera ziren zelaira Gaztediko kideak eta bi entsegurekin errenta handitzea lortu zuten (5-27). Kataluniarrek ez zuten amore eman eta berdinketa eskuratzen saiatu

ziren. Bi ostiko kolpe eta entsegu batekin gerturatu ziren (15-27), baina gasteiztarrek ez zuten garaipenak ihes egitea nahi eta azken minutuetan lehia handia izan zen metroak irabazteko.

Igoera eskuratuta, hilaren 30ean izango den Euskal Ligako finala prestatzen hasiko da taldea.

Espainiarekin lanean

Bestalde, hilaren 12tik 17ra, errugbi 7ko 18 urtez azpiko Espainiako selekzioak kontzentrazioa egin zuen Madrilan eta bertan izan da Aitana Lazcano herritarra lanean.



Gaztediko jokalaria eta talde teknikoak igoeraeskuratu ostean. EUSKADI RUGBY

TXIRRINDULARITZA

Martinek, bosgarren postua Iruritan



M.A. MARTIN

Andoaingo Txirrindularitza eskolako Xabat Martin, Dario Gomez eta Unax Guisado herritarrak Baztandarrak III. sarian lehiatu ziren, hilaren 16an. Hiruetatik Martin izan zen lasterketan lehen postuetan borrokan ibili zena; Gomezek eta Guisadok euria eta hotzei zein erorikoei aurre egin behar izan zieten. Martinek eraso jo edo aurkarien ihesaldiak zapuztu zituen. Lan guztiaren ostean, esprintean bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

JUDO

Alebinak, ederki Ligan zein Kopan



LOKE JUDO

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko alebin mailako judokek hitzordu bikoitza izan zuten hilaren 16an eta 17an, Gipuzkoako Txapelketa eta Gipuzkoako Kopa. Ederki jardun ziren guztiak eta dominak izan zituzten sari. Taldeko sei judokak ere kadete mailako Espainiako Superkopa parte hartu zuten, Badajozen (Extremadura). Gazteak ongi borrokatu ziren arren, ezin izan zuten lehen kanporaketa gaititu.



Gure ikasleen ahotan

“Enpresa munduarekin oso lotua dagoen unibertsitatea da”



Definitu apur bat zure burua

Unibertsitatera arte, Lasarte-Orian egin ditut ikasketak guztiak: lehendabizi, Landaberri ikastolan, eta gero, Oriarte BHI.n. Betidanik, nire zaletasun nagusiak kirola eta musika izan dira. 8 urterekin hasi nintzen gitarra klasetara joaten, eta 10 urte beranduago joateaz utzi nuen arren, gaur egun nire kabuz maiz jotzen dut. Bestalde, gimnasioa, korrika, bizikleta, mendia edo beste edozein jarduerara egiten asko disfrutatzen dut eta egunero saiatzen naiz tarte bat ateratzen honetarako.

Zergatik aukeratu zenuen Energiaren Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Azken momentura arte ez nekien argi zer ikasi nahi nuen. Baina, alde batetik, beti kezkatu izan nau ingurugiroaren erronkak eta banekien egoera hobetzen lagundu zezakeen zerbaitekin lan egin nahi nuela. Horretaz gain, teknologia eta arlo praktikoak betidanik gustuko izan ditut teoriko hutsak baino gehiago. Beraz, Energiaren Ingeniaritza ikastea erabaki nuen azkenean. Behin hori erabakita, MUn egitea deliberatu nuen etxetik gertu zegoelako kanpua eta proiektuetan oinarritutako metodologiak erakartzen ninduelako.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arteko esperientzia positiboki baloratzen dut, nahiz eta aitortu lan handia eta dedikazioa eskatu dituela. Normala den bezala, gai batzuk besteak baino gutxiago gustatu zaizkit, baina ikasi

dudan gehiengoak interesgarria iruditu zait eta gaur egungo munduak behar dituen aldaketei begira oinarri sendoa ematen dutela pentsatzen dut. Gainera, ikusi dut lana eginez eta ahalegintzen kurtsoz kurtso aurrera egin daitekeela.

Nola definituko zenuke Mondragon Unibertsitatean jasotzen duzun ikasketeko metodologia?

MUko metodologiak aipagarriena PBL (Project Based Learning) eredu da nire ustez. Sei hileko bakoitzaren amaieran talde-proiektu bat egiten da zeinak kurtsoan zehar ikasitako arazo errealean aplikatuz hobe barneratzen laguntzen dizun. Bestalde, enpresa munduarekin oso lotua dagoen unibertsitatea da, LIPa (lanikaste partekatzea) eta GBLa enpresan egiteko erraztasunak ematen dituena.

Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna? Zerbait hobetzeko?

PBLetaz gain, klasekideekin lortzen den harremana da gehien gustatu zaidana. Azken finean, bakarrik 30 pertsona inguruko gela izan gara, arlo guztiak elkarrekin egiten genituenak. Beraz, erlazio ona egiten da denborarekin. Bestetik, ebaluazio jarraia izatea ere nabarmenduko nuke ikasgai guztia azterketa bakarrean kontzentratu ordez. Hala ere, honek hobetzeko gauzak dakartza; izan ere, PBLa hasi aurretik entregagai eta azterketa asko egoten dira denbora jarraitu eta exigentzia mailara iristea zaila da.

Erasmusen egon zara. Non egon zara? Zer izan da egonaldiaren abe-

rasgarriena zure ustez?

Erasmus egonaldia Pragan egin dut lehenengo sei hilekoan. Nire ustez, esperientzia akademikoaz gain, aberasgarriena garapen pertsonalerako eskaintzen duen guztia izan da: bakarrik moldatzen ikastea ezagutzen ez duzun hiri batean, erosotasunetik at egotea, unibertsitateko eta etxeko lanak daudden hamaika planekin uztartzeko antolatzen ikastea, eta beste kultura eta jende ezberdinetatik ikastea. Zalantzarik gabe Erasmus estantzia gomendatuko nuke.

GBLa egiten ari zara. Non ari zara lanean eta zer lan mota egiten duzu?

GBLa Ikerlanen egiten ari naiz, Energiaren Biltzaratza eta Kudeaketa departamentuan proiektu bat garatuz. Alde batetik, horrek aukera ematen dit baterie buruzko ezagutza tekniko eta praktikoa eskuratzeko eta ikasitako aplikatzeko. Baina, enpresan egiteak lan mundua gertutik ezagutzea dakar baita ere: lan dinamika, antolaketa eta talde lanaren egunerokotasuna. Gainera, lanesperientzia eta dirusarrera txiki bat lortzeko ere baliagarria da.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Hurrengo ikasturteari begira, master bat egingo dudala ziur nago, nahiz eta oraindik ez dudan zehaztu zein aukeraturiko dudan. Gehien erakartzen nauten arloak sorkuntza banatua, sare adimentsuak, energia-biltzaratza eta ekonomia zirkularra dira, eta masterra horien inguruko izatea nahiko nuke.



Ezkerrean, Corman eta Martin pisuko podiumean. Eskuinean, proba konbinatueta lasterketa. OSTADAR ATLETISMOA/TXINTXARRI



gaztetxoek lau probetan parte hartu zuten: 80 m. eta 80 m. lasterketak, pisu jaurtiketa eta luzera jauzia. Ostadar SKTk hamar ordezkari izan zituen: infantil mailan, Amelie Flores, Nahia Garcia, David Roman, Danel Sanchez, Haritz Altuna eta Lucas Navas eta alebinetan, Ane De la Torre, Arhane Lopez, Pablo Roman eta Asier Mesa. Horietako batzuk lehen postuetan izan ziren eta Floresek infantil mailako garaipena erdietsi zuen.

EUSKADIKO TXAPELKETA

16 urtez azpikoa
 - Aitor Martin (Ostadar SKT):
 - Pisu jaurtiketa - 1º
 - Disko jaurtiketa - 2º
 - Nahia Garcia (Ostadar SKT):
 - Luzera jauzia - 1º
 - Xuban Corman (Ostadar SKT):
 - Pisu jaurtiketa - 2º
 - Alaia Romero (Real Sociedad):
 - 300 m. lasterketa - 2º

GIPUZKOA TXAPELKETA PROBA KONBINATUA

Infantil maila:
 - Amelie Flores (Ostadar SKT): 1º

Ligako finala

Bestalde, Kluben arteko Espainiako Ligako bigarren jardunaldia lehiatu zen. Herriko atletak dituzten Atletico San Sebastian eta Valentzia CA, Valentzia (Valentzia Erkidegoan) jokatu zen saioan finalerako txartela eskuratu zuten bigarren (172 p.) eta lehen (220 p.) sailkatuz, hurrenez hurren.

Donostiako taldean Nerea Eugi herritarrak 100 m. lasterketan (12,26) eta 4x100 m. erreleboan parte hartu zuen; bigarren izan zen azken horretan. Naroa Furundarena jauzilaria, aldiz, Valentzia CAn ari da lehiatzen denboraldi honetan eta jauzi hiru-

koitzeko proba irabazi zuen 13,29 metroira iritsiaz.

Hitzordu ezberdinak

Hilaren 23an ere, Ostadar SKTko zein herriko atletak lehiatzen izango dira.

Goizean Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan izango da herriko ordezkari bat eta arratsaldean, maila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia lehiatuko dute federatuek.

ATLETISMOA

Lasarte-Oriako atleta gazteak lehiatzen dira eta podiumetik podiumera izan dira

Lehen postuetan izan dira 16 urtez azpiko zein eskolarteko txapelketetan

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak ez dute etenik maiatzean. Hilaren 16an eta 17an, 16 urtez azpiko Euskadiko txapelketari zein Eskolarteko mailako proba konbinatueta Gipuzkoako txapelketari egin zioten aurre.

Euskadiko 16 urtez azpiko txapelketan Ostadar SKTko zazpi gazte zein Real Sociedad taldeko Alaia Romero izan ziren lehiatzen. Horietako batzuk podiumera igotzea lortu zuten eta bost domina jantzi zituzten herriko kirolari gazteek. Ikus taula. Na-

barmentzekoa da, Ostadarreko kideek pisu jaurtiketan lortutako podium bikoitza.

Eskolarteko Gipuzkoako txapelketekin jarraituz, proba konbinatueta lehiatzen izan zen hilaren 17an, Atsotabar kirolgunean. Alebin eta infantil mailako

FUTBOLA

Ostadarreko Gorengo Mailako taldeak azken jardunaldira arte lehiatu beharko du

Vasconiaren aurka garaipena eskuratu behar du bere multzoko bigarren izateko

Txintxarri

Pauso garrantzitsua eman zuen Ostadar SKTren Gorengo Mailako taldeak Astigarragako Mundarro 4-1 garaituta.

Michelingo zelaian jokatuak neurketan, etxeko taldea nagusi izan zen eta lehen zatia amaitzerako 3-0koa zegoen markagailuan.

Hiru puntuei esker, Jon Iruretaren taldea bere multzoko bigarren postuan mantendu da eta txapelketan horrela jarraituz gero, Ohorezko Erregional Mailako igoera gertuago izango luke taldeak. Gorengo Mailan bi multzoetako lehen sailkatuek zuzeneko kategoria igoera lortzen dute; ohorezko kategorian plaza hutsak egonez gero, gainerakoek lehen zatia zehazteko kanporaketak jokatu behar dituzte. Ostadarren kasuan, 2. multzoko bigarren sailkatuaren



Ostadar, erasoan. TXINTXARRI

garaitu eta ordu berean lehiatuko den Roteta eta Axular Lizeo taldeen arteko partidari adi egon beharko du.

Denboraldia amaitzen

Talde urdin-beltzeko Ohorezko Erregional taldea ez da bakarrik hilaren 24ko asteburuan ligako fase erregularra edo dagokion txapelketa amaitzen duena. Hilaren 17an, Texas Lasartearrako kadete I. mailako taldeak kopari agur esan zion eta oraingoan talde zuri-urdin zein Ostadarreko hainbat ordezkari denboraldiko azken partida jokatu dute.

Horietako askok maila mantenduko dute, baina bada azken fasean sartu den talderik ere, hala nola, urdin-beltzen Erregional I. Mailakoena. Kopako finalerdia jokatu dute Elgoibarren aurka.

aurka jokatu beharko luke eta neurketa irabazi, zerranda horretan lehengo egoteko.

Baina talde urdin-beltzaren multzoko sailkapena ere erabakitze dago. Hirugarren den Rotetak lasarteoriatarren antzerira 57 puntu ditu. Beraz, azken jardunaldia erabakigarria izango da. Ostadarrek Vasconia

Jon Martin, herrian eta bigarren gola

Herritar mordo bildu zen, hilaren 15ean, BM saltokian. Etxeko txikienek osatu zuten kasik San Pedro elizaraino ailegatzen zen ilara. Guztiek aukera izan zuten Realeko jokalaririk Jon Martin herritarrekin tarte batez egoteko. Atzelariak denenei firmatutako irudi propioa eman zien eta horrez gain, apirileko jokalarionenaren saria jaso zuen.

Bestalde, bai Realak bai Sansek ere EA Sports eta Hypermotion Ligetan mantentzeko nahikoa puntu eskuratu dituzte. Hilaren 14an, Girona eta Real Sociedad taldeek bana berdindu zuten Gironan (Katalunia) jokatuak partidaren eta Jon Martin herritarra izan zen protagonista lehen goleak. Korer batean buruz errematatu eta gola egin zuen Lasarte-Oriako atzelariak. Sansek, aldiz, hilaren 16an, Anoetan Mirandesekin bina berdinduta lortu zuen beharrezko azken puntua.

Ez dira ligako amaitu, ordea. Hilaren 23an, Realak azken jardunaldia jokatu du Espanyolen aurka, Bartzelonan (Katalunia). Talde txuri-urdinaren Errege Kopa eskuratzeko Europako jokatzeko txartela du; Espanyolek, aldiz, jokoan du Europako sartzeko aukera. Partida borrokatua espero da.

Sansek Albaceteren (hilaren 24an) eta Cultural Leonesaren (hilaren 31n) aurka neurtuko ditu indarrak ligari amaiera emateko.



Jon Martin, baloia sinatzen. TXINTXARRI

IGERIKETA

Lasarte-Oriako saria, kirolaren eta berdintasunaren aldeko apustua

Buruntzaldea IKTK antolatzen duen kirol probak 35 urte beteko ditu aurten

Txintxarri

Buruntzaldea IKTK 35. urtez Lasarte-Oriako Saria antolatuko du hilaren 30ean, arratsalde, Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz. Igeriketa taldeko kideek zein udal ordezkariak berdintasunaren alde egiten duen txapelketaren aurkezpena egin zuten.

Buruntzaldea IKTKo lehendakari Aitziber Martiarenak eta Dani Garmendia elkarteko kideak azaldu dituzte sariaren nondik norakoak. "Denboraldiari amaiera emateko antolatu ohi dugu txapelketa, aurten pixka bat aurreratu behar izan dugu", aipatu du Martiarenak.

Igeriketa taldeko arduradunak nabarmendu modura, txapelketa honetan "pertsonek" eta "berdintasuna" dira helburu, horregatik igeriketa zein igeriketa egokituko kategorija guztiei zabalik dago txapelketa.

Saioan estilo ezberdinetako hamahiru proba egingo dira erlojuz kontrako serietan. Serieak marka eta kategorija bidez osatuko dira, genero eta gaitasuna edo desgaitasuna kontuan hartu gabe. Txapelketako jardunaren



Buruntzaldea IKTKo arduradunak zein udal ordezkariak, aurkezpenean. TXINTXARRI

arabera, kategorija desberdinetan sarituak izango dira. Sailkapen bakoitza bere erreferentziak taularen arabera lortutako puntuen baitan egiten da.

Eta markak alde batera utzita, amaitzeko australiarra joko aiguten dela ere aditzera eman dute.

Gozatzea helburu

Nahiz eta probak bere alde lehiakorra izan, helburua parte hartzea eta ongi pasatzea dela nabarmendu dute igeriketa taldeko kideek: "Jendea etortzea, igeri egitea eta ongi pasatzea

nahi dugu. Sariak daude maila bakoitzeko, baina markak ez dira garrantzitsuak, guztiek eramango dute domina. Lehian oinarri duen ekimena den arren, kirolariak igeri egitea gozatzea nahi dugu".

Aurtengoan berrikuntza modura, Master kategoriako kideek ere parte hartu ahalko dute: "2017tik aurrera edozein adinetako igerilarik, gu geuk ere parte hartu ahalko genuke. Era horretara, 11 urteko neskatila edo mutiko bat eta 40 urteko emakumezko edo gizonezkoa batera daude igerian".

Iaz lehiaketak Euskal Herriko 11 taldeetako kideak batu zituen, baina aurtengoan oraindik ez dakite zenbat igerilari edo talde parte hartuko duten sarian: "Guk inguruko, Gasteizko zein iparraldeko talde ezberdinei bidali diegu gonbidapena. Baina oraindik izen ematea irekia dagoenez, ezin dugu zehaztu".

Udalaren laguntza

Hori guztia aurrera eramateko Buruntzaldea IKTK udalaren lan-kidetza izango du bi: batetik kirol instalazioak eta proba egiteko behar den material logistikoa utziko dizkiete eta bestetik sariak Tratu On Bat markaren babesarekin. Eta horregatik Kirol zinegotzi Goizalde Pildain zein Nuria Fernandez sozioekonomia arloko zinegotzia ere izan ziren agerraldian.

Udal arduradunek Buruntzaldea IKTK urte osoan zehar igeriketa eta kirola sustatzen egiten duen lana nabarmendu zuten, baita horrelako lehiaketa batek suposatzen duen antolakuntza esfortzua ere.

Kirol elkarteko zein udal ordezkariak herritarrek animatu dituzte hilaren 30ean kiroldegira hurbiltzera eta kirol jardunaldi batez gozatzea. "Igeriketa kirol gogorra da, banakakoa, baina taldeko kideek zein beste ekipokoek elkarri animatzen diete eta giro polita sortzen da. Herritar guztiak animatzen ditugu ere etortzera", egin dute gonbita Buruntzaldea IKTKo arduradunek.

ESKOLA KIROLA



ESKOLA KIROLA

Eskola Kirola zer den erakusteko saio irekia hilaren 30ean

Txintxarri

Hilaren 30ean, goizeko 9:30etik 11:00etara, Eskola Kirola topaketa berezia egingo da.

Saioa Lasarte-Oriako LH1 eta LH6 arteko haur guztiei bideratuta egongo da, nahiz eta eskola kirolan izena emanda ez egon.

Eskola kirola, Ttakunek, Guraso Elkarteekin eta Udalarekin elkarlanean garatzen duen herriko proiektua da eta aurten 2026-2027 ikasturteari begira, izena ematea sustatu eta hurrek programa zertan datzan ezagutzeko jardunaldi hau antolatu dute.

Jolasak egingo dira, kirol ezberdinak probatuko dituzte eta begiraleak ere ezagutzeko aukera izango dute. Amaitzean, parte hartzaile guztiek hamaketakoaz gozatuko dute.

Topaketan parte hartzeko esteka honetan (<https://forms.gle/zbeAAJkARq5YbHV8>) edo azpiko QRa eskaneatuz izena eman behar da. Inskripzioa hilaren 25ean irekiko dute, 09:00etan.

Berrikuntzak

Hurrengo ikasturteetik aurrera Eskola Kirola egitasmoa aldaketa batzuk izango dituela jakitera eman dute antolatzaileek, hala nola, kuoten bateratzea. Aurrebejaminek (LH1 eta LH2) 30 euroko kuota izango dute. Benjaminek (LH3 eta LH4) eta alebinek (LH5 eta LH6), aldiz, 60 eurokoa. Gainera, 2025-2026 ikasturtean hezkuntzako beka jaso duten hurrek, 2026-2027 ikasturtean eskola kirolan 0 euroko kuota izango dute.



PILOTA

Herriko pilotariak, denetariako emaitzak eskuz zein gomazko paletan

Lasarte-Oriak 1-2ko markagailuari itzulia eman beharko dio Gomazko Paletako Herriarteko txapelketan aurrera egiteko

Txintxarri

Lasarte-Oriak gomazko paletako Herriarteko txapelketa hasi zuen, hilaren 16an, Tolosan.

Joaneko lehia jokatu zuten herriko ordezkariak Tolosaren aurka eta ez zuten zorterik izan; 2-1 galdu zuten.

Banakako lehietan Julen San Miguel (kantxa osora) eta Iker Artetxe (7ra) ezin izan zituzten Tolosako kideak gaintu; 20-12 eta 20-3 izan ziren emaitzak. Binakakoan, aldiz, Ander Loidi eta Iban Arruti 9-29 gailendu ziren.

Lasarte-Oriak jokatu dute etorriko jardunaldia, hilaren 24an, 11:00etan Loidibarren pilotalekuan. Emaitzari itzulia ematen saiatuko dira herriko palistak, nahiz eta zaila izan: "Tolosak talde indartsua duela erakutsi du lehen saioan eta puntuak ere aurka ditugu. Zaila da baina saiatuko gara borrokatzen".

Denetariako emaitzak

Bestalde, Intzako pilotari federatuak Lau eta Erdiko Gipuzkoako txapelketako partidak



Olazabal, pilotari jotzen. TXINTXARRI

izan zituzten. Kadete I. mailako Intza-LAPKE buruz burukoa ez zen jokatu, baina gainerako neurketetan lau garaipen eta bost porrot izan zituzten kirol elkarteko kideek. Emaitzak ondoko koadroan ikusgai.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 1 M.

• Intza KE (Artetxe) 21 - 22

Legazpi

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 2. M.

• Intza KE (Olazabal) 22 - 13

Gaztelupe

• Oiarpe 22 - 20 Intza (Diaz

de Gereñu)

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K.

EMAK.

• Intza (Iparragirre) 13 - 22

Alde Zaharra

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 2. M.

• Intza KE (Elola) 22 - 8

Tolosa

• LAPKE 11 - 22 Intza KE

(Atorrasagasti)

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. M.

• Intza KE (Lopez) 7 - 22


Gaztelupe

• Intza KE (Lasa) 9 - 22

Bergara

• Bergara 3 - 22 Intza (Maiz)

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Maritxu
Etzi, maiatzak 24... Bingo!
Zorionak lorategiko lore
politinari!!! Presta zaituz
guapixima, ederki ospatuko
dugulako zure
urtebetetzea!!! Familiakoen
partetik.



Maddi
Zorionak Maddi!!! Jadanik
13 urte zoragarri zure
ondoan. Asko maite zaitugu
Oier, Unax, aita eta ama.

SUDOKUA

				3		1	2
	7	2	5				6
8				2	6		
	6		7				4
2	4			5		8	
7	8		2			6	5
5			3		2	4	6
		8					
3						2	9

Sudoku-online.org

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko,
hiru bide:

- txintxarri.eus-en erabiltzailea sortu eta txintxarri.eus/zorionagurra helbidean sartu.

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

- Zatoz Ttakunera edo bidali WhatsApp-ez 688 68 35 10 telefonora.

Osteguneko 16:00ak arte
jasoko ditugu

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 22	DE MIGUEL
LARUNBATA, 23	ORUE
IGANDEA, 24	ORUE
ASTELEHENA, 25	LASA
ASTEARTEA, 26	GIL
ASTEAZKENA, 27	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 28	KNIESE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO

22:00etatik 09:00etara

CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbieta kalea 7, / 94-55 29 41

OHARRA

Soka dantza

San Joan bezperan, sutzarra piztu aurretik, soka dantza egingo dute eta emanaldi hori presatzeko entseatzeko hasi direla jakinarazi du ERKETZ EDT dantza taldeak. Ekainaren 18ra arte (egun hori barne), ostegunero elkartuko dira Garaioetxea-Landaberri ikastetxearen patioan, 19:00etan. Deialdi irekia dela zehaztu dute.

IRAGARKI SAILKATUAK

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48
publizitatea@ttakun.eus
www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria,
Iñigo Gonzalez Sarobe,
Maddi Noriega Zaldúa
eta Lierni Apaolaza
Urdanpilleta.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo,
Gorka Alvarez, Aizpea
Amas, Maitane Rebe, Jexux
Artetxe, Oihane Puertas
eta Pili Ormazabal.

Banatzzaileak
Nora Navarro, Aimar
Hernandez, Gari Iraola,
Axier Iraola, Eneko Sanchez
eta Udane Guisado.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua:
SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 22

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Aterpea merkatarien elkarteak antolatutako Udaberriko Festaren barruan jarduera hauek egingo dituzte: **17:00etatik 19:00etara**, Ormazabal loradendan, *Landatu zure landarea* tailerra. **17:00etatik 19:00etara**, Lilura liburu dendan, haurrentzako tailerra. Ekimen berezi horiez gain deskontuak eta eskaintza bereziak egingo dituzte Aterpeako bazkide diren saltoki ugariak.
- **Aurkezpena** Kriseilu Gazte Langileen Asanbladako kideek *Karabista* fanzinea aurkeztuko dute. Kontzertu akustikoa eta apintxada (azken hori, Siglo20 tabernan) ere egingo dituzte. Jalgi kafe antzokia, 18:00etatik aurrera.
- **Zinema** *Bugonia* filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 23

LASARTE-ORIA

- **Topaketa** II. Txaranga Eguna ospatuko dute herrian barrena: **10:30ean**, diana, Hamaika Doinu Txistulari Taldearen eskutik. **11:00etan**, txarangarako instrumentuak egiten ikasteko tailerra, Okendo plazan. **12:00etan**, Oaintxe in deul txarangaren emanaldia. **14:00etan**, txarangapotea, Kita del Pare taldeko kideekin. Buenetxea, OKS eta Patricio tabernetan. **16:00etan**, Los Espontaneos txarangaren emanaldia. **18:00etan**, Goxo txarangaren emanaldia. **20:00etan**, Malatxo txarangaren emanaldia. **22:00etan**, Arranopola txarangaren emanaldia.
- **Ospakizuna** Aterpea merkatarien elkarteak antolatutako Udaberriko Festaren barruan jarduera hauek egingo dituzte: **11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik**

20:00etara, txu-txu trenea herriko kaleetan barrena. Geltoki kaletik abiatuko dira bidaia guztiak.

11:00etatik 13:00etara, Amali jolas dendan, *Udaberri, lore berri* tailerra.

12:00etatik 15:00etara, Andatza tabernan, musika akustikoarekin girotutako bermutak.

13:00etatik 15:00etara, Oria Txiki tabernan, parrilla jana.

18:00etatik 20:00etara, Okendo plazan, Aterpearen udaberriko parrilla jana: txanpinoiak eta barrikotea.

18:30etik 21:30era, Buenetxea kafetegitabernan, The Gu eta So-zerdotes taldeen kontzertuak.

19:00etatik 21:00etara, Oria Txiki tabernan, Arka taldearen kontzertua.

• **Tailerra** Lego tailerra antolatu dute 6 urte baino gehiagoko haurrentzat. Udal Liburutegia, bi txandatan: 10:00etatik 11:00etara eta 11:15etik 12:15era.

• **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.

• **Musika** XX. Musika Topaketak antolatu dituzte



'KULTURKLIK' ATARIA

Lasarte-Oriako Udalak eta Danok Kide elkarteak. Horren barruan, *Piano baten inguruan batzen gaituena* emanaldia egingo dute Jakes Txapartegi, Esther Barandiaran eta Iñaki Salvador musikariek. Sarrera doakoa da baina joan nahi dutenek gonbidapenak eskuratu behar dituzte aretoko leihatilan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

DONOSTIA

- **Manifestazioa** Zubietako erraustegiaren aurkako mobilizazioa egingo dute. Ekinza horrekin bat egin du Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak eta herritarrak animatu ditu parte hartzera. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza, 13:00etan.

zein eragile, herritar oro gonbidatu dute parte hartzera. Oriarte Landaberri institutua, 18:00etan.

DONOSTIA

- **Elkarretaratzea** Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformak deitu duen ekintzarekin bat egin du gure herriko LOOPA eragileak eta herritarrak animatu ditu parte hartzera. "Hilabetetan luzatzen ari den ESI Donostialdeko Eteengabeako Arreta Gunearen egoera gero eta larriagoa" salatuko dute. Andia kalea, 11:30ean.

ASTEAZKENA 27

LASARTE-ORIA

- **Bilera eta aurkezpena** Ttakun KEk eta udalak herriko elkarteak deitu dituzte euskararen bueltako udazkeneko ekimen nagusiak (Euskal Jaia eta XI. Euskararen Maratoia) prestatzeko bilerara. Ttakunenea elkarteak, 18:00etan. Ordu bete geroago, XI. Euskararen Maratoia dinamizatuko duten zortzi kideak aurkezteko ekitaldi irekia aurrera eramango dute. Leloa eta logotipoa ere jakinaraziko dituzte. Jalgi kafe antzokia, 19:00etan.

OSTEGUNA 28

LASARTE-ORIA

- **Hitzaldia** LGTBQ+ egitarauaren barruan, *Alternativas para hacer frente a las violencias por motivos de orientación*

LASARTE-ORIA Musika

XX. Musika Topaketak antolatu dituzte udalak eta Danok Kide elkarteak. Horren barruan Piano baten inguruan batzen gaituena emanaldia egingo dute Jakes Txapartegi, Esther Barandiaran eta Iñaki Salvador musikariek. Sarrera doakoa da baina gonbidapenak eskuratu behar dituzte leihatilan.

sexual e identidad de género hitzaldia emango du Elena Olaurtua Gonzalez adituak. Mercerero aretoa, 18:30ean.

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA

- **Gastronomia** Maiatza bukatu eta ekainari harrera ederra egite aldera afari proposamena egin dute Xirimiri elkarteak kideek. 15 euroren truke, menu hau prestatu dute: natxoak gazta eta guakamolearekin; hamburgesa osoa; eta jogurta granolarekin. Aukera begetarianoa, beganoa edota glutenik gabekoa nahi dutenei 658 64 16 21 telefono zenbakira idazteko eskatu diete. Xirimiri elkarteak, 21:00etan.
- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmoaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.

IGANDEA 31

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Haurrei zuzendutako saioan *David, una aventura gigante* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduei zuzendutako saioan *Little Amelie* filma emango dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.



TXINTXARRI

LASARTE-ORIA Topaketa

Sei talderekin batera (herrikoak dira horietako bi, Oaintxe in deul eta Arranopola) dantza egingo dute II. Txaranga Egunean parte hartzera animatzen diren herritarrek. Goizetik hasi eta ilundu arteko egitaraua prestatu dute antolatzaileek; 10:30ean hasiko dira, txistularien dianarekin.

EUSKARA

11. Euskararen Maratoiko zortzikotea osatuko dutenen misterioa argitzear da!

Hilaren 27an aurkeztuko dituzte aurtengo saltseroak, Jalgin, 19:00etan

Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak laster argituko dute ondo baino hobeto gordetako misterioa, sekretuetan sekretuena: urriaren 17an eta 18an aurrera eramango duten 11. Euskararen Maratoiko saltsa guztietako zortzi perrexil hostoak nortzuk izango diren. Bestela esanda, zein herritarrek osatuko duten talde dinamizatzailea: zortzikotea.

Hori iragartzeko ekitaldia hilaren 27an egingo dute, asteazkenez, Jalgi kafe antzokian, 19:00etatik aurrera. Zortzikoteko kideen berri ematez gain, euskararen erabilera sustatzea eta komunitatea elkartzea xede dituen ekitaldiaren leloa eta logotipoa aurkeztuko dituzte. Antolatzaileek herritar guztiak (norbanakoak nahiz eragileak) gonbidatu dituzte aurkezpen



2004ko zortzikoteko kideak, dotore jantzita, hasiera ekitaldian. TXINTXARRI

ekitaldi horretara eta aurreratu dute ostean luntxa izango dutela, Euskararen Maratoiaren bueltako berri horiek ezagutzeak sorraraziko dien zirrari buelta emateko eta elkarrekin dantzatzeko indarrak hartzeko.

Horren aurretik, udazkeneko bi ekimen nagusiak (Maratoia bera eta Euskal Jaia, irailaren 26an egingo dutena) prestatzeko bilerara deitu dituzte herriko elkarteetako kideak. 18:00etan bilduko dira Ttakunenean.



2008ko Maratoiko zortzi saltseroak, 39. orduari agur esaten. TXINTXARRI



Zortzi herritar hauek dinamizatu zuten 2022ko Euskararen 10. Maratoialdia. TXINTXARRI

11. EUSKARAREN MARATOIA

ZATOZ AURKEZPEN EKITALDIRA!

zatoz!



Maiatzaren 27an
19.00etan



Jalgi tabernan

ondoren luntxa egongo da!

Nortzuk izango dira zortzikoteko kideak? Leloa? Eta logoa?



URRIAK
17-18

gorde data!